


Banaketa eta komunikazio kanalak




Gure bezeroen profila gaztea dela jakinik, eta bezero berriak erakartzeko kanpainetan pentsatzen jarritz gero, sare sozialak dira egokienak. Gazteek egunero erabiltzen dituzten aplikazioak dira, online egotea geroz eta ohikoagoa da adin tarte honetan, beraz, sare-sozialetako kontuetatik eta aplikazioetako iragarkietatik marketin-kanpaina eta estrategia ezberdinak burutzea izango litzateke zentzuzkoena.

Zerbitzua bezero berriengana helarazteko eta hauen arreta erakartzeko, marketina eta publizitatea izango da ardatz nagusia.

Batetik, bezeroak lortzeko, ezinbestekoa da zerbitzua zabaltzea, ahoz aho kontatzen ibiltzea, eta herritarrek gure aplikazioaren berri izatea. Horretarako egingo ditugu egunkarirako iragarkiak adibidez. Egunkaria milaka pertsonak irakurtzen dute egunero, eta bertan gure aplikazioaren informazio laburra eta nola kontaktatu argi eta labur azalduko bagenu, bezero berriek ez lukete asko tardatuko iristen. Sare-sozialetako kontuak ere sortuko ditugu bertan kanpaina mota ezberdinak egiteko, eta subkontratutako enpresa txikiak lagunduko digu hori gauzatzen. Besteak beste, lehiaketak, zozketak eta abarreko ekintzekin jendea erakarri eta baliteke aplikazioa erabiltzeko konbentzitzea.

Adinez helduagoak direnentzat, baina teknologiak menperatzen dituztenentzat, irratan ere iragarkiak egingo genituzke. EITB eta ARRATE-n gehienbat. Irratia helduagoek entzuten dute, baina baita gure bezero nagusienek ere; hau da, ibilgailuetako gidarien ehuneko handi batek entzuten du musika edo irrata errepidean. Hemen ere hainbat eta hainbat bezero erakarriko genituzke.

Banaketa eta komunikazio kanalak



Gerora, aplikazioaren arrakasta ikusita, eta marketinerako diru gehiago bideratuko bagenu, ideia ezberdin batzuk ere izan ditugu, gure bezeroen fideltasuna lortu, bezeroak mantendu eta hazteko. Iruditzen zaigu ez litzatekela ideia txarra izango autobidetik auto elektriko bat gure aplikazioaren publizitatez forratuta joatea. Horrela, errepidetik doan orok ikusiko luke autoa eta gure aplikazioaren berri izango luke, baliteke bidaia horren ondoren gure aplikazioarekin aparkalekua bilatu nahi izatea.